*Foru Aginduak*

## TOKI ADMINISTRAZIOAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

**4253**

**339/2011 FORU AGINDUA, uztailaren 4koa, behin betiko onartzen duena Gaubeako udalerriko udal planeamenduaren arau subsidiarioen 11. aldaketa puntualaren espedientea, Astúlez, Barrio, Bóveda, Corro, Espejo, Gurendes, Valluerca, Villamaderne eta Villanañeko herrigunei eragiten diena.**

I.- AURREKARIAK

Lehenengoa.- 2008ko irailaren 26an, Gaubeako Udalak hasierako onarpena eman zion indarrean dauden planeamenduko arau subsidiarioen aipatutako aldaketari (arau subsidiarioak otsailaren 28ko 188/2003 Foru Aginduaren bidez onartu ziren behin betiko). Halaber, espediente hori hilabetez jendaurrean jartzea ere erabaki zuen eta, horretarako, iragarkiak argitaratu ziren 128 zenbakiko ALHAOn (2008ko azaroaren 7koan), El Correo egunkarian (2008ko azaroaren 23koan), eta udaletxeko iragarki taulan.

Bigarrena.- Hasierako onarpen hori udalerriko kontzejuetako administrazio batzarrei jakinarazi zitzaien, bai eta arloan eskumena duten administrazio publikoei ere.

Hirugarrena.- Espedientea jendaurrean egon zen bitartean, alegazioak aurkeztu ziren; testua idatzi duen taldeak horiei buruzko txostena egin ondoren, udalbatzak ebatzi zituen.

Ur Legearen 25.4 artikuluan, Estatuko Lurzoruaren 2/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 15. artikuluan eta Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen 3.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak dagokion txostena bidali zion Gaubeako Udalari, non 2009ko maiatzaren 18an izan zuen sarrera.

Onetsitako alegazioak eragindako aldaketak garrantzizkoak ez zirenez gero, 2010eko urtarrilaren 29ko osoko bilkuran erabaki zen udal planeamenduaren arau subsidiarioak berriro aztertzeko espedienteari behin-behineko onarpena ematea.

Laugarrena.- Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legeak 91.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeko Planeamendu Atalak espedienteari buruzko txostena egin zuen maiatzaren 6ko 3/2010 bilkuran.

Bosgarrena.- Gaubeako Udalak espedientea bidali zion (sarrera eguna: 2010eko maiatzaren 25a) Arabako Foru Aldundiari, hala bazegokion, behin betiko onar zezan.

Gerora, Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Sailaren 2010eko ekainaren 4ko eta 2011ko apirilaren 8ko errekerimenduei erantzunez, agiri osagarriak bidali zituen. Agiri osagarri horiek 2011ko apirilaren 4an eta maiatzaren 18an izan zuten sarrera, hurrenez hurren, Arabako Foru Aldundiaren erregistro orokorrean.

Seigarrena.- Era berean, 2010eko urriaren 19an, Arabako Foru Aldundiaren erregistro orokorrean, udalbatzak 2010eko irailaren 24ko osoko bilkuran aho batez onartutako erabaki baten idazkia jaso zen. Idazki hartan jakinarazten zen, Espejoko Administrazio Batzarrak hala eskatuta, Espejori zegokiona arau subsidiarioen 11. aldaketa puntualetik at geratzen zela eta gainerako administrazio batzarrei zegokienak bere hartan jarraitzen zuela.

II.- OINARRIAK

Lehenengoa.- Gaubeako udalak sustatu eta izapidetutako aldaketak, Espejoko herriguneari dagokiona at itxitakoan, ondoko helburuak ditu:

**Astulezko herrigunea:**

1. Oinezko eta ibilgailuentzako bide sarean zenbait doiketa egiten dira, administrazio batzarrak benetan urbanizatutakoak agirietan jasotzeko.

2. Ur andelera daraman hegoaldeko kalea eta foru errepidea elkartzen diren gunea berriro definitzen da, egin den bezala eta egikaritze unitateak bere hartan utzita.

*Órdenes Forales*

## DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN LOCAL Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

**4253**

**ORDEN FORAL 339/2011, de 4 de julio, de aprobación definitiva del expediente de 11ª modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Valdegovía, que afecta a los núcleos de Astúlez, Barrio, Bóveda, Corro, Espejo, Gurendes, Valluerca, Villamaderne y Villanañe.**

I.- ANTECEDENTES

Primero.- Con fecha 26 de septiembre de 2008, el Ayuntamiento de Valdegovía acordó aprobar inicialmente la modificación de referencia de las Normas Subsidiarias de Planeamiento vigentes, aprobadas definitivamente por Orden Foral 188/03, de 28 de febrero, así como someter el expediente a información pública por el plazo de un mes, hecho que fue practicado mediante anuncio en el BOTHA nº 128, de 7 de noviembre de 2008, el periódico El Correo de 23 de noviembre de 2008 y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

Segundo.- De dicha aprobación inicial, fueron notificadas las Juntas Administrativas de los Concejos del municipio, así como las Administraciones Públicas con competencias sectoriales.

Tercero.- Dentro del plazo de exposición al público se presentaron diversas alegaciones que, tras ser informadas por el equipo redactor fueron resueltas por la Corporación.

De conformidad con lo dispuesto en el artº. 25.4 de la Ley de Aguas, el artº. 15 del RDL 2/2008 Ley del Suelo Estatal, el artº 3.2º de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, la Confederación Hidrográfica del Ebro remitió el correspondiente informe al Ayuntamiento de Valdegovía, donde tuvo entrada el día 18 de mayo de 2009.

Considerando que las modificaciones producidas por la estimación de una de las alegaciones no eran sustanciales, se acordó aprobar provisionalmente el expediente de Revisión de Normas Subsidiarias de Planeamiento en Pleno de fecha 29 de enero de 2010.

Cuarto.- De conformidad con lo dispuesto en el artículo 91.2 de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, el expediente fue informado por la Sección de Planeamiento de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco en su sesión 3/2010, de fecha 6 de mayo.

Quinto.- El Ayuntamiento de Valdegovía remitió el expediente a la Diputación Foral de Álava para su aprobación definitiva, si procediese, donde tuvo su entrada el día 25 de mayo de 2010.

Posteriormente, a requerimientos con fecha 4 de junio de 2010 y 8 de abril de 2011, del Departamento de Administración Local y Equilibrio Territorial, remitió documentaciones complementarias que tuvieron entrada en el Registro General de la Diputación Foral de Álava, los días 4 de abril de 2011 y 18 de mayo de 2011, respectivamente.

Sexto.- Asimismo y con fecha 19 de octubre de 2010 se recibió en el Registro de la Diputación Foral de Álava un escrito comunicando un acuerdo por unanimidad del Pleno municipal de 24 de septiembre de 2010 en el que, a solicitud de la Junta Administrativa del Concejo de Espejo, quedaba excluido lo concerniente a Espejo en la Modificación nº 11 de las Normas Subsidiarias, continuando vigente lo concerniente al resto de las Juntas Administrativas.

II.- FUNDAMENTOS

Primero.- La modificación, promovida y tramitada por el Ayuntamiento de Valdegovía, tiene por objeto los siguientes puntos, una vez desistida la propuesta relativa al núcleo de Espejo:

**Núcleo de Astúlez:**

1. Se realizan diversos ajustes de la red viaria peatonal y rodada, para recoger en la documentación lo realmente urbanizado por la Junta Administrativa.

2. Se redefine el entronque de la calle situada al sur, que conduce al depósito de agua, con la carretera foral, según se ha ejecutado, y manteniendo las unidades de ejecución como estaban.

3. Hego-mendebaldeko mugan, jabegoaren mugetara doitzen da hiru lurzoruaren muga, lurzati-agiri zehatzagoa baitago.

**Barrioko herrigunea:**

1. Toki sistemako erabilera eta jabari publikoko bide sailkatzen dira dagoeneko badiren oinezkoentzako zenbait ibilbide, eta zuzendu egiten da mendira daraman bidearen ibilbidea.

2. Zenbait tokitan bat dator hiri lurzoruaren muga jabegoaren mugarekin, euskarri informatikoan den katastroa erabili ondoren. Egindako zuzenketa txikiek ez dute lurzoru urbanizaezina hartzen.

**Bovedako herrigunea:**

1. Oinezko eta ibilgailuentzako bide sarean zenbait doiketa egiten dira, planeamenduan jasotako trazadura egitean zailtasunak izan baitira.

2. Aldatu egiten da espazio libreen toki sistemaren kokapena, La Sernako SAUR bizitegitarako sektorean, bere hartan eutsi nahi zaion baso landaketa bati eusteko.

**Corroko herrigunea:**

1. Irteera kalearen norabidea errotari eta elizari egokitzen zaie, egitea errazte aldera.

2. Handitu egiten da espazio libreen toki sistema, eta horrela sailkatu ibai ertzak, sarbide errepidea eta UE CO01.

**Gurendesko herrigunea:**

1. Eraikin zaharra eraitsi eta lurzatia udalarena denez gero, aldatu egiten da bizitegitarako sailkapena, Gurendesko hegoaldean aparkalekuak eta plaza bat lortzeko.

**Valluercako herrigunea:**

1. Zenbait doiketa egiten dira administrazio batzarraren lurretako bideetan, bai eta egokitu ere espazio publikoak lurzatien jabegoari.

2. Aldatu egiten da lurzoruaren kalifikazioa, espazio libreak sortzeko eta UE VAL01, UE VA02, UE VA03 eta UE VA04 egikaritze unitateak mugatzeko.

**Villamaderneko herrigunea:**

1. Egokitu egiten da sarbide kalea, foru errepiderako proiektatutako espaloia kenduz; eta jabari publikoko kalearen zati bat bide sistemako bihurtzen da.

**Villanañeko herrigunea:**

1. Sarbide kalearen eta plazaren trazaduran hainbat doiketa egiten dira, dagoeneko egindakoari egokitzeko.

2. Doiketak egiten dira foru errepidean, haren ibilbidea zeharbiderako proiektatutakoari egokitzeko.

Bigarrena.- Espedienteak planeamendua dagoeneko egindakoari egokitzea du helburu: euskarri informatikoan den katastro informazioa baliatuz planeamenduaren mugak zehaztu, ahal den lekuetan dotazio publikoak ugaritu, dotazioak leku berrietan kokatu eta haien erabilerak zehaztu eta egikaritze unitateak sortu zenbait eremutako hirigintza kudeaketa hobetzeko. Antolamendu xehakatuaren doiketari buruzko proposamen horiek berek erakusten dute haien beharra, antolamendu erregularrago eta errealago bat izate aldera. Aldatu gabe egiten dira egungo hirigintza parametroak, hiri lurzoru edo lurzoru urbanizagarriei dagozkienak. Halere, egiaztatu egin beharko da erabilera eta jabari publikoko espazio libre kalifikatuberrien jabetza publikoa, bai eta haiek erosteko ekonomia eta finantza bideragarritasunari buruzko azterlana egin ere.

Hirugarrena.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak, maiatzaren 6ko 3/2010 bilkuran, ez zuen inolako trabarik jarri, lotesleak diren alderdietan, espedienteak aurrera egin zezan.

Laugarrena.- Dagokion arro erakundeak, honako honetan Ebroko Ur Konfederazioak, ur eskaera berriei buruzko espedientearen aldeko txostena egin du, bai eta ur jabari publikoa eta ur-lasterren araubidea

3. Se ajusta el límite del Suelo Urbano en el lindero Sur Oeste, al límite de la propiedad, al disponer de parcelario más exacto.

**Núcleo de Barrio:**

1. Se califican como vialidad de uso y dominio público de sistema local, algunos itinerarios peatonales existentes, y se rectifica el trazado de la vía que va al monte.

2. Se ajusta el límite del suelo urbano al límite de la propiedad, en algunos puntos para mayor claridad una vez que se dispone del catastro en soporte informático. Las pequeñas correcciones realizadas, no invaden el suelo no urbanizable.

**Núcleo de Bóveda:**

1. Se hacen ajustes de la red viaria peatonal y rodada, por dificultades de ejecución de la traza de planeamiento.

2. Se modifica el emplazamiento del sistema local de espacios libres en el sector residencial SAUR La Serna, para la inclusión de una plantación forestal que se quiere conservar.

**Núcleo de Corro:**

1. Se ajusta la directriz de la calle de salida al molino e iglesia, para facilitar su ejecución.

2. Se amplía el sistema local de espacios libres, calificando de esta forma el suelo colindante con el río, la carretera de acceso y la UE CO01.

**Núcleo de Gurendes:**

1. Se modifica la calificación de residencial, para la obtención de unos aparcamientos y plaza en Gurendes- Sur, una vez que ha desaparecido la antigua edificación y que la parcela es de propiedad municipal.

**Núcleo de Valluerca:**

1. Se realizan diversos reajustes de la vialidad en terrenos de la Junta Administrativa y adecuación de los espacios públicos a la titularidad de las parcelas.

2. Se modifica la calificación de suelo, para la creación de espacios libres y delimitación de las unidades de ejecución UE VAL01, UE VA02, UE VA03 Y UE VA04.

**Núcleo de Villamaderne:**

1. Se ajusta la calle de acceso mediante supresión de la acera proyectada, sobre carretera foral, y se incluye en el sistema viario un tramo de la calle de propiedad pública.

**Núcleo de Villanañe:**

1. Se realizan diversos reajustes en la traza de la calle de acceso y plaza, para adecuarlo a lo ya ejecutado.

2. Se realizan reajustes en la carretera foral, para adecuar su trazado a lo proyectado para la travesía.

Segundo.- El expediente persigue, por tanto, la adecuación del planeamiento a la realidad de lo ejecutado; perfilar los límites del planeamiento según la nueva información catastral una vez que se dispone de la misma en soporte informático; la ampliación de las dotaciones públicas donde ello es posible; la reubicación de usos y dotaciones y la creación de unidades de ejecución para mejorar la gestión urbanística de algunos ámbitos. Dichas propuestas relativas a ajustes de la ordenación pormenorizada, se justifican por sí mismas, en aras de una ordenación más regular y más real. Se realiza sin modificar los parámetros urbanísticos actuales y concierne únicamente a los suelos urbanos o urbanizables. Sin embargo las nuevas calificaciones de espacios libres de uso y dominio público, habrán de justificarse en orden a la titularidad pública de los mismos, incluyendo, en cualquier caso, un estudio de la viabilidad económico-financiera de su posible adquisición.

Tercero.- La Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco 3/2010 de 6 de mayo no ha puesto objeción al expediente en los aspectos en que su informe es vinculante.

Cuarto.- El organismo de Cuenca correspondiente, en este caso la Confederación Hidrográfica del Ebro, informa favorablemente el expediente respecto de las nuevas demandas hídricas e informa favora-

babestearen, Bovedako hiru egikaritze unitateetan eta bi sektore urbanizagarrietan egin beharreko jardueren, Astulezko bi egikaritze unitateen, Villanañeko UE1en eta Valluercako UE4ren aldekoa ere. Horiek horrela, eremu horretan, arroen zaintza zonan (100 metro), egingo diren obrek eta eraikinek ez dute arro erakunde horren baimenik behar izango, baldin eta espedientean jasotzen badira eta jarduera horiek txostenean adierazitakoak betetzen badituzte.

Bosgarrena.- Aldundi honetako Herrilan eta Garraio Sailak zera adierazi du:

- GURENDESEN:

Eraikin zaharra eraitsi eta lurzatia udalarena denez gero, aldatu egiten da bizitegitarako sailkapena, Gurendesko hegoaldean aparkalekuak eta plaza bat lortzeko.

Aurkeztutako agirien arabera, aparkalekuen banaketak eta errepidetik oso hurbil dagoen bide elkarguneko zuhaitzen lerrokadurak zaildu egiten dute ikuspena eta, ondorioz, bide segurtasuna, batez ere, errepidera sartzeko unean. Hortaz, aldaketa hori onartu ahal izateko, hiru baldintza bete behar dira:

- Elkargunea hobetzea; horretarako, biraketa erradioak, gutxienez, 10 metrokoak izango dira, gune gatazkatsurik ez sortzeko.

- Errepidetik hurbilen dagoen aparkaleku plaza kendu egingo da, bidegurutzeko maniobrak oztopatzen baititu.

- Zuhaitzak botatzea edo atzeratzea, bidegurutzeko maniobretan ikuspena zail ez dezan.

- VILLAMADERNEN:

A-4328 auzo errepideko espaloi zati bat kentzea proposatzen da. Ezin da onartu, ordea, proiektatutako espaloiaren jarraipena eten eta oinezkoentzako arriskua sortuko lukeelako eta zeharbideko zati baten urbanizazioa eragotziko lukeelako.

Ondorioz, ez da proposatutako aldaketa onartzen, eta eutsi egin beharko zaio espaloi zati horri.

- VILLANAÑEN:

Doiketak egiten dira A-2622 errepidean, haren ibilbidea zeharbidean oraintsu egindako obrei egokitzeko. Doiketa horiek zati bati baino ez diote eragiten; beraz, aldaketa hori onartzeko, adierazi egin beharko dira “A-2622 errepidea Villanañe (Araba) zeharkatzen duen zatian egokitzeko eraikitze proiektua” dela-eta dagoeneko egindako obrak.

Seigarrena.- Espedienteen aurkezpen homogeneoa ahalbidetzen duten betekizunei buruzko Arabako Hirigintza Batzordearen lehendakariaren jakinarazpenaren B.2.d.ii.1)b) idatz zatiak, Gaubeako Udalari 2009ko azaroaren 23an jakinarazitakoak, jarduera bakoitzeko eremuak mugatzeko edo seinalatzeko eskatzen du. Aurkeztutako espedienteak, aldiz, ez du mugatze edo seinalatze hori jasotzen, eta horrek oso zail egiten du jarduera bakoitzaren egoera zehaztea agiri grafiko guztietan, ezinbestekoa, berriz, behin betiko espedientean.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak baliatuz, hauxe

XEDATU DUT

Lehenengoa.- Behin betiko onartzea Gaubeako udalerriko udal planeamenduaren arau subsidiarioen 11. aldaketa puntualaren espedientea, Astúlez, Barrio, Bóveda, Corro, Espejo, Gurendes, Valluerca, Villamaderne eta Villanañeko herrigunei eragiten diena, ondoko baldintzekin:

I.- Espejoko herrigunean hasiera batean aurrez ikusitako jardueraren espedientea ezabatzea.

II.- Agirian jasotzea dagokion arroko erakundeak adierazitakoei lotuta egongo direla laugarren oinarrian aipatutako finkatu gabeko lurzoru urbanizagarrian eta hiri lurzoruan egin beharreko jarduerak.

blemente respecto de la protección del dominio público hidráulico y el régimen de las corrientes, las actuaciones a realizar en las tres unidades de ejecución y los dos sectores urbanizables en Bóveda, las dos unidades de ejecución de Astúlez, la UE nº 1 de Villanañe y las 4 UE de Valluerca, de manera que las obras y construcciones que se ubican en dichos ámbitos, en la zona de policía (100 m. anchura) de los cauces, no requerirán autorización de dicho Organismo de Cuenca siempre que se recojan en el expediente y dichas actuaciones cumplan las previsiones que dicho informe señala.

Quinto.- El Departamento de Obras Públicas y Transportes de esta Diputación ha informado:

- EN GURENDES:

Se modifica la calificación de residencial, para la obtención de unos aparcamientos y plaza en Gurendes-Sur, una vez que ha desaparecido la antigua edificación y que la parcela es de propiedad municipal.

Según la documentación aportada tanto la distribución de los aparcamientos como la disposición de una alineación de árboles en la intersección muy próximas a la carretera, hace que se vean minoradas las condiciones de visibilidad y, en consecuencia, de seguridad vial en las maniobras de acceso a la carretera. En consecuencia, para poder admitir esta modificación han de cumplirse tres condiciones:

- Mejorar la intersección con la adopción de unos radios de giro de 10 m. como mínimo, para no crear un punto conflictivo.

- Eliminar la plaza de aparcamiento más cercana a la carretera que se encuentra obstaculizando las maniobras de cruce.

- Eliminar o retranquear la alineación de árboles, de forma que no afecte a la visibilidad en las maniobras de cruce.

- EN VILLAMADERNE:

Se propone suprimir un tramo de acera sobre la carretera vecinal A-4328 que no puede admitirse, en cuanto que se perdería la continuidad de la acera proyectada, creando una discontinuidad que ocasionaría un gran riesgo para los viandantes, impidiendo la urbanización de ese tramo de travesía.

En consecuencia, no se admite la modificación propuesta, debiendo mantenerse la continuidad de la acera.

- EN VILLANAÑE:

Se hacen reajustes en la carretera A-2622 para adecuar su trazado a las recientes obras realizadas sobre la travesía. Estos reajustes solo afectan a una parte, por lo que para ser admitida esta modificación se deberán reflejar completamente las obras ya realizadas correspondientes al “Proyecto de acondicionamiento de la carretera A-2622 en la travesía de Villanañe”.

Sexto.- El apartado B.2.d.ii.1)b). de la comunicación del Presidente de la Comisión de Urbanismo de Álava, sobre los requisitos que posibilitan una presentación homogeneizada de los expedientes, notificada al Ayuntamiento de Valdegovía el 23 de noviembre de 2009, requiere la delimitación o señalamiento de los ámbitos de cada una de las actuaciones, delimitación o señalamiento de los que carece el expediente presentado, lo que hace muy difícil determinar la situación de cada actuación en cada documento gráfico, aspecto que deberá ser recogido en el expediente definitivo.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO

Primero.- Aprobar definitivamente el expediente de 11ª Modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Valdegovía, que afecta a los núcleos de Astúlez, Barrio, Bóveda, Corro, Espejo, Gurendes, Valluerca, Villamaderne y Villanañe, con las siguientes condiciones:

I.- Eliminar del expediente la actuación inicialmente prevista en el núcleo de Espejo.

II.- Incluir en el documento la obligación de que las actuaciones a realizar en los ámbitos del suelo urbanizable y suelo urbano no consolidado citados en la consideración cuarta, se sujetarán a las previsiones indicadas por el organismo de Cuenca correspondiente.

III.- Astulezen, Bovedan, Corron eta Valluercan proposatutako erabilera eta jabari publikoko espazio libre kalifikatuberrien jabetza publikoa edo pribatua justifikatzea. Justifikazio horrek haiek erosteko ekonomia eta finantza bideragarritasunari buruzko azterlana jasoko du, baldin eta lurzatiak pribatuak badira.

IV.- Agirian jasotzea bosgarren oinarrian aipatutako zehaztapenak, Gurendes, Villamaderne eta Villanañeko bideei buruzkoak.

V.- Gaubeako Udalari 2009ko azaroaren 23an egindako jakinarazpenaren arabera, proiektuko planoetan proposatutako jarduera eremuak identifikatzea eta mugatzea zenbaki bidez eta proiektuko planoetan kokapen zehatza adieraziz, espedienteak homogeneizatzeko.

Bigarrena.- Aipatutako baldintzak ez dira funtsezkoak. Beraz, haiek zuzendutakoan espedientea foru aldundiari igorriko zaio, berriro jendaurrean jarri gabe, betearazi beharrekoa dela adieraz dezan, izapideak egin daitezen eta argitara dadin.

Hirugarrena.- Foru agindu hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena.- Foru agindu honek administrazio bidea amaitzen du. Beraz, interesdunek abiaraz dezaketen beste edozein neurriz gain, ondoko errekurtsoak aurkeztu ahal izango dituzte:

a) Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan. Horretarako, bi hilabete izango dira, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

b) Nahi izanez gero, eta aipatutako errekurtsoa baino lehenago, interesdunek berraztertze errekurtsoa jar diezaiokete, edo beste administrazio batzuek errekerimendua, ebazpena eman duen erakunde berberari. Horretarako, hilabeteko epea izango da hura jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Gasteiz, 2011ko uztailaren 4a.– Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Saileko Foru Diputatua, IÑAKI NAFARRATE KORTABARRIA.

## TOKI ADMINISTRAZIOAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

**4274**

**328/2011 FORU AGINDUA, uztailaren 1ekoa, Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen Sailak sustaturik, interes publikoa aitortzen diona Lantarongo udalerrian gaikako bilketarako hiru garbigune instalatzeari.**

AURREKARIAK

Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen Sailak inauskinak eta gai handi eta bizigabeak gaika biltzeko hiru garbigune instalatzea aurreikusten du Lantarongo Udalaren urbanizaezin sailkatutako eta zenbait kalifikazio dituzten lurzatietan. Hona hemen lurzati horien kokapena:

Katastro erref.: 35-2-735, Arkeologia Babeseko Zona, BERGONDAN.

Katastro erref.: 35-7-1018, Substratu Ahuleko Nekazaritza eta Abeltzaintza Babeseko Zona, COMUNIONen.

Katastro erref.: 35-6-373, Substratu Ahuleko Nekazaritza eta Abeltzaintza Babeseko Zona eta Bide Komunikazioen Babeseko Zona, SALCEDOn.

Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak arautzen duen baimen izapidea betetzearren, Lantarongo Udalak espedientea bidali zuen, udal arkitektoaren txostena barne.

ZUZENBIDE OINARRIAK

Sail honek eskumena dauka aztertzen ari den espedientea ebazteko, ekainaren 11ko Diputatuen Kontseiluaren 42/2008 Foru Dekretuari jarraituz.

III.- Justificar las nuevas calificaciones de espacios libres de uso y dominio público propuestos en Astúlez, Bóveda, Corro, y Valluerca, en orden a su titularidad pública o privada, incluyendo, un estudio de la viabilidad económico-financiera de su posible adquisición, si se trata de parcelas de titularidad privada.

IV.- Incluir en el documento las determinaciones citadas en el fundamento quinto respecto de la vialidad de Gurendes, Villamaderne y Villanañe.

V.- Identificar y delimitar los ámbitos de las actuaciones propuestas en los planos de proyecto mediante relación numérica y señalamiento de su correcta ubicación en los planos de proyecto según la comunicación citada al Ayuntamiento de Valdegovía, para la homogeneización de los expedientes, de 23 de noviembre de 2009.

Segundo.- Las condiciones señaladas no son sustanciales, por lo que una vez subsanadas se elevará el expediente a la Diputación Foral, sin necesidad de someterlo a un nuevo trámite de información pública, con el fin de declarar su ejecutoriedad y proceder a su diligenciación y publicación.

Tercero.- Publicar la presente resolución en el BOTHA.

Cuarto.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrán interponer los particulares cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que estimen procedente en defensa de sus intereses:

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición por los interesados o requerimiento por otras Administraciones, ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Vitoria-Gasteiz, 4 de julio de 2011.– El Diputado de Administración Local y Equilibrio Territorial, IÑAKI NAFARRATE KORTABARRIA.

## DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN LOCAL Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

**4274**

**ORDEN FORAL 328/2011, de 1 de julio, declarando de interés público la instalación de tres puntos limpios de recogida selectiva en el municipio de Lantarón, promovido por el Departamento de Medio Ambiente de de la Diputación Foral de Álava.**

ANTECEDENTES

El Departamento de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Álava, tiene prevista la instalación de tres puntos limpios de recogida selectiva de poda, voluminosos e inertes, en el municipio de Lantarón, en terreno clasificado como No Urbanizable con distintas calificaciones, localizados en las siguientes parcelas:

Ref. Catastral 35-2-735, Zona de Protección Arqueológica, en BERGÜENDA

Ref. Catastral 35-7-1018, Zona de Protección Agropecuaria sobre Sustrato Frágil, en COMUNIÓN

Ref. Catastral 35-6-373 A, Zona de Protección Agropecuaria sobre Sustrato Frágil y Zona de Protección de Comunicaciones Viarias, en SALCEDO

El Ayuntamiento de Lantarón remitió el expediente para cumplimiento del trámite autorizatorio que ordena la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, incorporando el informe emitido por la arquitecta municipal.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Este Departamento es competente para resolver el expediente que se examina de conformidad con el Decreto Foral del Consejo de Diputados núm. 42/2008, de 11 de junio.